## Reglamento del Centro Joxe Mari Korta I+D+i

(Aprobado en Junta de Campus de la UPV/EHU en su sesión extraordinaria de 10 de mayo de 2007)

## Disposiciones

### Título primero

*Ubicación y objeto del Centro*

**Artículo 1.** 1. El Centro Joxe Mari Korta de I+D+i, Centro de Investigación, Desarrollo e Innovación, se sitúa en la zona de Ibaeta, Avenida de Tolosa 72 de Donostia-San Sebastián, integrado en el Campus de Gipuzkoa de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

2. El régimen de su utilización y funcionamiento se ajustará a lo previsto en este Reglamento y a la normativa universitaria y administrativa que sea de aplicación.

**Artículo 2.** El Centro dará cabida a:

1. Espacios de investigación:

*a)* Destinados a Grupos de Investigación Aplicada e Institutos Universitarios de Investigación científico-tecnológicos, principalmente en áreas científico-técnicas y también en áreas de actividad encuadradas en Ciencias Sociales y Humanidades con clara vocación de transferencia de conocimiento a las empresas y a la sociedad.

*b)* Destinados al desarrollo de proyectos de investigación e innovación promovidos por empresas en colaboración con Grupos de Investigación.

2. Espacios de vivero e incubadora de empresas de base tecnológica y *spin-off*

## Joxe Mari Korta I+G+B Zentroaren Erregelamendua

(2007ko maiatzaren 10ean UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Batzarrak aparteko bilkuran onetsia)

## Xedapenak

### Lehenengo titulua

*Zentroaren kokalekua eta helburua*

**1. artikulua.** 1. Joxe Mari Korta I+G+B zentroa Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza zentroa da eta Donostiako Ibaeta auzoan dago (Tolosa etorbidea, 72), Euskal Herriko Unibertsitateak Gipuzkoan duen Campusean.

2. Zentroaren erabilera eta funtzionamendua araudi honek eta aplika dakizkiokeen unibertsitate eta administrazio arauek gobernatuko dituzte.

**2. artikulua.** Gune hauek egongo dira Zentroan:

1. Ikerketa guneak:

*a)* Ikerketa Aplikatuko Taldeentzat eta Ikerketa zientifiko-teknologikoetako Unibertsitateko Ikerketa Institutuentzat. Talde eta institutu horiek jardungo dute, batez ere, arlo zientifiko-teknikoetan eta baita Gizarte Zientzietako eta Giza Zientzietako jardueretan ere, ezagutzak enpresei eta gizarteari transferitzeko helburu argiarekin.

*b)* Enpresek Ikerketa Taldeekin batera bultzatutako ikerketa eta berrikuntza egitasmoak garatzeko.

2. Oinarri teknologikoa duten enpresen eta unibertsitateko *spin-off* enpresen mintegitarako eta inkubadoratarako guneak.

universitario.
3. Espacios para el Centro Informático para la Docencia, Investigación y Red de la Universidad (CIDIR) del Campus de Gipuzkoa.
4. Espacios destinados a los Servicios Generales de Investigación.
5. Zonas de Servicios Comunes vinculados al uso, aprovechamiento y administración del propio edificio.

**Artículo 3.** En el marco de esta normativa se podrán definir nuevos contenidos y actividades para su ubicación en el Centro.

3. Gipuzkoako Campuseko Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Sareko Informatika Gunearentzako (IISIG) guneak.
4. Ikerketa Zerbitzu Orokorrentzako guneak.
5. Eraikinaren beraren erabilera, aprobetxamendua eta administrazioari lotutako Zerbitzu Orokorretarako eremuak.

**3. artikulua.** Arautegi honen babesean zentroan kokatzeko eduki eta jarduera berriak definitu ahal izango dira.

## Título segundo

*Sección primera.- Criterios generales para la adjudicación de los espacios*

**Artículo 4.** Al otorgar espacios en el Centro a Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación se atenderá primordialmente a las siguientes cualidades:
1. Tener experiencia y trayectoria científica con tendencia creciente, presentando un incremento adecuado de la actividad y su comunicación, así como un equilibrio entre la generación de conocimiento y su transferencia.
2. Tener relaciones continuadas y estables o compromisos con empresas.
3. Tener necesidades específicas de equipamiento que no sean compatibles con las infraestructuras de que disponen actualmente.
4. Tener carácter o vocación multidisciplinar.
5. Estar ya establecidos, consolidados y afianzados.

## Bigarren titulua

*Lehen atala.- Guneak adjudikatzeko irizpide orokorrak*

**4. artikulua.** Zentroan Ikerketa Taldeei eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuei guneak ematerakoan ezaugarri hauek hartuko dira aintzat batez ere:
1. Handitzen ari den esperientzia eta ibilbide zientifikoa izatea. Jarduera eta horren komunikazioa neurrian hazten ari dela azaldu beharko da, eta baita ere ezagutzaren sorreraren eta horren tansferentziaren arteko oreka.
2. Enpresekin harreman etengabeak eta egonkorrak edo konpromisoak izatea.
3. Gaur egun dituzten azpiegiturekin bateragarriak ez diren ekipamendu behar zehatzak izatea.
4. Diziplina anitzekoak edo horretarako joera izatea.
5. Dagoeneko ezarrita, sendotuta eta finkatuta egotea.

**Artículo 5.** Al otorgar espacios en el Centro a empresas se atenderá primordialmente a las siguientes cualidades:
1. Desarrollar proyectos de investigación con Grupos de Investigación o Institutos Universitarios de Investigación de la UPV/EHU.
2. Mantener una relación previa estable con la UPV/EHU.
3. Colaborar en las actividades universitarias.

**5. artikulua.** Zentroan enpresei guneak ematerakoan ezaugarri hauek hartuko dira aintzat batez ere:
1. UPV/EHUko Ikerketa Taldeekin edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuekin ikerketa egitasmoak garatzea.
2. Lehendik UPV/EHUrekin harreman egonkorra izatea.
3. Unibertsitateko jardueretan laguntzea.

**Artículo 6.** Al otorgar espacios en el Centro para vivero e incubadora de empresas, éstas deberán estar cualificadas por:
1. Ser *spin off* de la UPV/EHU, cualquiera que haya sido el programa universitario en que se hayan desarrollado.
2. Tener menos de tres años desde su constitución como empresas autónomas.

**6. artikulua.** Zentroko guneak enpresa mintegitarako eta inkubadoratarako emango dira baldin eta:
1. UPV/EHUko *spin off-ak* badira, edozein dela ere garatzeko izan duten unibertsitate programa.
2. Enpresa autonomo moduan hiru urte baino gutxiago badituzte.

**Artículo 7.** El resto de servicios pueden ser ubicados mediante resolución del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa en el marco de las necesidades de la gestión universitaria o de los compromisos adquiridos con agentes externos del entorno social y económico.

**7. artikulua.** Gainerako zerbitzuak Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren ebazpenaren bidez kokatuko dira, aintzat hartuz unibertsitatearen kudeaketa beharrak edo ingurune sozial eta ekonomikoko kanpo eragileekin hartutako konpromisoak.

*Sección segunda.- Procedimiento de adjudicación de los espacios para Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación*

*Bigarren atala.- Ikerketa Taldeentzako eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuentzako eremuak adjudikatzeko prozedura.*

**Artículo 8.** La adjudicación de los espacios a Grupos de Investigación e

**8. artikulua.** Ikerketa Taldeei eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuei

Institutos Universitarios de Investigación se realizará mediante convocatoria pública realizada al efecto.

deialdi publikoaren bidez adjudikatuko zaizkie guneak.

**Artículo 9.** Las propuestas se dirigirán al Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, irán acompañadas de los documentos requeridos al efecto y se presentarán en el Registro del Campus de Gipuzkoa en el plazo determinado en la propia convocatoria.

**9. artikulua.** Proposamenak Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzara bideratuko dira, horretarako eskatuko diren agiriekin batera, eta Gipuzkoako Campuseko Erregistroan aurkeztuko dira, deialdian bertan aurreikusten den epean.

**Artículo 10.** Las propuestas se formalizarán de la siguiente manera:
1. Se rellenarán los modelos de impresos facilitados para la presentación de las propuestas.
2. Las propuestas deberán ir firmadas al menos por un profesor o una profesora de la UPV/EHU, responsable del Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación, con el grado de doctor o doctora y dedicación completa.

**10. artikulua.** Honela egingo dira proposamenak:
1. Proposamenak aurkezteko emango diren inprimaki ereduak beteko dira.
2. Proposamenak UPV/EHUko irakasle batek sinatuko ditu gutxienez. Irakaslea Ikerketa Taldearen edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuko arduraduna izateaz gain doktore eta arduraldi osokoa izango da.

**Artículo 11.** Las propuestas deberán incluir:
1. El historial científico-técnico del Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación solicitante.
2. El programa de actividades y resultados previstos.
3. La memoria de necesidades.

**11. artikulua.** Hau azalduko da proposamenetan:
1. Eskaera egiten duen Ikerketa Taldearen edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuaren historial zientifiko-teknikoa.
2. Aurreikusitako jardueren eta emaitzen programa.
3. Beharren memoria.

**Artículo 12.** La evaluación de las propuestas se regirá por las siguientes pautas:
1. Las propuestas serán evaluadas por la Comisión Científica del Centro.
2. El proceso de evaluación constará de

**12. artikulua.** Proposamenen ebaluazioa honela egingo da:
1. Zentroko Batzorde Zientifikoak ebaluatuko ditu proposamenak.
2. Ebaluazio prozesuan bi irizpide multzo dituen prozedura bat jarraituko

un procedimiento con dos bloques de criterios diferenciados: el primero referido a la evaluación del Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación solicitante y el segundo al programa de actividades y memoria de necesidades.

da. Lehenengo multzoan, eskaera egiten duen Ikerketa Taldea edo Unibertsitateko Ikerketa Institutua ebaluatuko da eta, bigarrenean, jardueren programa eta beharren memoria.

**Artículo 13.** Los criterios de evaluación del Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación solicitante serán los siguientes:
1. La calidad de la investigación científica.
2. La participación en proyectos, redes y contratos con empresas.

**13. artikulua.** Eskaera egiten duen Ikerketa Taldea edo Unibertsitateko Ikerketa Institutua irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:
1. Ikerketa zientifikoaren kalitatea.
2. Enpresekin batera egitasmoetan, sareetan eta kontratuetan parte hartzea.

**Artículo 14.** Los criterios de evaluación del programa de actividades y memoria de necesidades propuestos serán:
1. La valoración obtenida del programa de actividades relacionadas con el objeto de la convocatoria.
2. La adecuación del programa de actividades a la necesidad de espacios del Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación solicitante en el Centro.

**14. artikulua.** Proposatzen diren jardueren programa eta beharren memoria irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:
1. Deialdiaren helburuarekin zerikusia duten jardueren programarekin lortutako balorazioa.
2. Jardueren programa eskaera egiten duen Ikerketa Taldearen edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuaren espazio beharretara egokitzea.

**Artículo 15.** La resolución de asignación de espacios se adoptará de la siguiente manera:
1. Una vez evaluadas las propuestas, la Comisión Científica del Centro elaborará su propuesta de asignación de espacios en el Centro, la cual trasladará al Consejo Ejecutivo del Centro. Si lo estima conveniente, el Consejo Ejecutivo del Centro podrá mencionar y sugerir modificaciones en los programas de actividades y

**15. artikulua.** Honela hartuko da guneak esleitzeko ebazpena:
1. Behin proposamenak ebaluatuta, Zentroko Batzorde Zientifikoak bere proposamena egingo du Zentroko guneak esleitzeko. Proposamena Zentroko Kontseilu Betearazleari igorriko zaio eta Kontseilu Betearazleak aldaketak aipa eta iradoki ditzake jardueren programan eta beharren memorian, bidezkoa iruditzen bazaio, haiek Zentroaren helburuetara

memorias de necesidades para conseguir una mejor adaptación de los mismos a los objetivos del Centro. Seguidamente, el Consejo Ejecutivo del Centro elevará su propuesta al Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

2. La adjudicación de espacios a los diferentes Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación se realizará mediante resolución del Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa y será notificada a los solicitantes.

3. Una vez realizada la adjudicación, con la finalidad de establecer las condiciones definitivas de ubicación de los distintos Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación y conseguir un adecuado desarrollo del programa de actividades en el Centro, se establecerá un contrato-programa con cada uno de ellos.

**Artículo 16.** La asignación de espacios implicará:

1. *Contrato-programa.* El responsable de cada Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación firmará un contrato-programa en el que se detallen nítidamente los objetivos económicos y/o científicos a alcanzar y permita la evaluación final de la actividad investigadora desarrollada.

2. *Financiación.* Al objeto de que el Centro pueda disponer de medios adicionales y diferenciadores para conseguir su objetivo principal de potenciar la investigación, la

hobeto egokitze aldera. Ondoren, Zentroko Kontseilu Betearazleak bere proposamena aurkeztuko dio Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari.

2. Guneak Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren ebazpenaren bidez adjudikatuko zaizkie Ikerketa Taldeei eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuei eta ebazpena eskaera egin dutenei jakinaraziko zaie.

3. Behin adjudikazioa eginda, kontratu-programa bat ezarriko da, Ikerketa Taldeen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuen behin betiko kokalekuari buruzko baldintzak finkatzeko eta Zentroaren baitan jardueren programaren garapen egoki bat lortzeko.

**16. artikulua.** Guneak esleitzerakoan elementu hauek zehaztuko dira:

1. *Kontratu-programa.* Ikerketa Talde edo Unibertsitateko Ikerketa Institutu bakoitzeko arduradunak kontratu-programa bat sinatuko du, non argi eta garbi azalduko diren erdietsi beharreko helburu ekonomikoak eta/edo zientifikoak, eginiko ikerketa lanaren azken ebaluazioa egin ahal izateko.

2. *Finantzaketa.* Tarifa bat ezarriko zaio Zentroan dihardUen Ikerketa Taldeari edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuari, esleitu zaion gunearen arabera, Zentroak bitarteko gehigarriak

transferencia de tecnología y conocimiento, y promocionar la creación y/o el incremento y fortalecimiento de relaciones con empresas, se establecerá una tarifa a satisfacer por el Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación que desarrolle su actividad en el mismo en función del espacio asignado:

*a)* La tarifa se fijará anualmente por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa a propuesta del Consejo Ejecutivo del Centro.

*b)* La tarifa podrá ser abonada, en parte, mediante las retenciones efectuadas en los proyectos que el Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación desarrolle, en el porcentaje establecido por la normativa universitaria sobre la materia. La cantidad restante hasta alcanzar la tarifa establecida será abonada por cada Grupo de Investigación o Instituto Universitario de Investigación con sus propios medios.

*c)* La tarifa se ingresará en la UGA correspondiente abierta a tal efecto.

3. *Gastos de traslado e instalación.* Los gastos ocasionados por el traslado e instalación en el edificio de las infraestructuras de los distintos Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación, serán objeto de consideración especial en cada caso.

4. *Limitación temporal.* Inicialmente, se establecerá un plazo de tiempo máximo de seis años, con una eventual evaluación intermedia acordada por el

eta bereizleak izan eta bere helburu nagusia bete dezan, alegia, ikerketa eta teknologiaren eta ezagutzaren transferentzia indartzea eta enpresekiko harremanak sortzea eta/edo handitzea eta indartzea.

*a)* Tarifa Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak ezarriko du urtero, Zentroko Kontseilu Betearazleak proposatuta.

*b)* Tarifaren zati bat ordain daiteke Ikerketa Taldea edo Unibertsitateko Ikerketa Institutua garatzen ari den egitasmoetan eginiko atxikipenen bidez, gaiaren inguruko unibertsitate araudian aurreikusitako ehunekoan. Gainerakoa, tarifa osatu arte, Ikerketa Talde edo Unibertsitateko Ikerketa Institutu bakoitzak bere baliabideen bidez ordainduko du.

*c)* Tarifa horretarako dagokion UGAn ordainduko da.

3. *Lekualdatze eta instalazio gastuak.* Ikerketa Taldeen edo Unibertsitateko Ikerketa Institutuen azpiegiturak aldatzeagatik eta Zentroan instalatzeagatik sortutako gastuak arreta bereziz aztertuko dira kasu bakoitzean.

4. *Iraupena.* Hasieran, sei urterako adjudikatuko dira guneak, gehienez. Tartean, baliteke Zentroko Kontseilu Betearazleak ebaluazio bat egitea

Consejo Ejecutivo del Centro, y posibilidad de prórrogas sucesivas. La permanencia vendrá condicionada por la evaluación que será efectuada por la Comisión Científica del Centro a solicitud de la Consejo Ejecutivo del Centro, la cual tomará en consideración las posibilidades de ampliación determinadas conforme a los compromisos suscritos con cada usuario. En el caso de que la evaluación sea negativa o se incumplan las condiciones de cesión, el Consejo Ejecutivo del Centro podrá instar el desalojo de las instalaciones en un plazo máximo de tres meses a partir de la correspondiente resolución.

5. *Personal.* (1) El personal técnico previsto para los Servicios Generales de Investigación será personal propio asignado a dichos Servicios.
(2) Los Grupos de Investigación y los Institutos Universitarios de Investigación a los cuales se les asignen espacios en el Centro trasladarán y seleccionarán su propio personal investigador.
(3) El personal estructural adscrito al edificio vendrá determinado por la plantilla de referencia de la UPV/EHU.
(4) Bajo las directrices del Director o de la Directora del Centro y el o la Vicegerente del Campus de Gipuzkoa, el Administrador o la Administradora del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa coordinará la gestión administrativa del Centro.

erabakitzea. Denboraldi hori luzagarria izango da. Iraupena, dena den, ebaluazioaren arabera egongo da. Ebaluazioa Zentroko Batzorde Zientifikoak egingo du, Zentroko Kontseilu Betearazleak eskatuta. Kontseilu Betearazleak adjudikazioa luzatzeko aukerak aztertuko ditu, erabiltzaile bakoitzarekin izenpetutako konpromisoen arabera. Ebaluazioa negatiboa bada edo lagapen baldintzak betetzen ez badira, Zentroko Kontseilu Betearazleak hiru hilabete emango ditu instalazioak uzteko, dagokion ebazpenetik hasita.

5. *Pertsonala.* (1) Ikerketa Zerbitzu Orokorretarako aurreikusitako pertsonal teknikoa zerbitzu horiei egokitutako berezko pertsonala izango da.
(2) Zentroan guneak esleitu zaizkien Ikerketa Taldeek eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuek beren ikertzaileak eraman eta hautatuko dituzte.
(3) Eraikinari atxikitako pertsonal estrukturala UPV/EHUren erreferentziazko plantilan zehaztuko da.
(4) Zentroko zuzendariaren eta Gipuzkoako Campuseko gerenteordearen ildoen babesean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzako administratzaileak koordinatuko du Zentroko kudeaketa administratiboa.

*Sección tercera.- Procedimiento de adjudicación de los espacios para empresas*

**Artículo 17.** La adjudicación de los espacios a empresas se realizará mediante el procedimiento y criterios establecidos para los Grupos de Investigación, adaptados a las características de las empresas.

**Artículo 18.** Las tarifas siempre serán superiores a las establecidas para los Grupos de Investigación de la UPV/EHU y se actualizarán anualmente en función del incremento de los costes y a propuesta del Consejo Ejecutivo del Centro.

*Sección cuarta.- Procedimiento de adjudicación de los espacios para vivero e incubadora*

**Artículo 19.** La adjudicación de los espacios para vivero e incubadora se realizará mediante los criterios de adjudicación, las condiciones de uso y el período de incubación de las empresas *spin-off* que serán establecidas en una Comisión Asesora, que las propondrá al Consejo Ejecutivo del Centro para su aprobación definitiva.

**Artículo 20.** La Comisión Asesora estará formada por el Vicerrector o la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa –que la preside-, el Director o la Directora de Relaciones Externas del Campus de Gipuzkoa y el Director o la Directora del programa Entreprenari de Bic Gipuzkoa Berrilan, o en su caso por las personas en quien deleguen.

*Hirugarren atala.- Guneak enpresei adjudikatzeko prozedura*

**17. artikulua.** Guneak enpresei adjudikatzeko, Ikerketa Taldeei adjudikatzeko aurreikusi diren prozedura eta irizpideak erabiliko dira, azken horiek enpresen ezaugarrietara egokitu ostean.

**18. artikulua.** Tarifak UPV/EHUko Ikerketa Taldeei ezarritakoak baino garestiagoak izango dira beti eta urtero eguneratuko dira, kostuen hazkundearen arabera, Zentroko Kontseilu Betearazleak proposatuta.

*Laugarren atala.- Guneak mintegi eta inkubadora gisa adjudikatzeko prozedura*

**19. artikulua.** Guneak mintegi eta inkubadora gisa erabiltzeko esleitzeko orduan, *spin-off* enpresentzako aurreikusiriko adjudikazio irizpide, erabilera baldintza eta inkubatzealdi epeak hartuko dira aintzat. Horiek Aholku Batzorde batean zehaztuko dira eta batzorde horrek Zentroko Kontseilu Betearazleari proposatuko dizkio, behin betiko onar ditzan.

**20. artikulua.** Hauek osatuko dute Aholku Batzordea: Gipuzkoako Campuseko erretoreordeak (lehendakaria), Gipuzkoako Campuseko Kanpo Harremanen zuzendariak eta Bic Gipuzkoa Berrilan-eko Entreprenari programaren zuzendariak, edo horiek eskuordetu ditzaketen pertsonak.

*Sección quinta.- Adjudicación por sede*

**Artículo 21.** Tendrán su sede en el Centro:
1. El Centro Informático para la Docencia, Investigación y Red de la Universidad (CIDIR) del Campus de Gipuzkoa.
2. Los Servicios Generales de Investigación acordados con el Vicerrectorado de Investigación de la Universidad por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.
3. Los Institutos Universitarios de Investigación de áreas científico-tecnológicas que así lo soliciten conforme a la normativa sobre sedes de Institutos Universitarios de Investigación del Campus de Gipuzkoa.

*Bosgarren atala.- Adjudikazioa egoitzagatik*

**21. artikulua.** Beren egoitza Zentroan izango dute:
1. Gipuzkoako Campuseko Irakaskuntza, Ikerkerkuntza eta Sareko Informatika Guneak (IISIG).
2. Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak Unibertsitateko Ikerketa errektoreordearekin adostutako Ikerketa Zerbitzu Orokorrek.
3. Horrela eskatzen duten alor zientifiko-teknologikokoetako Unibertsitateko Ikerketa Institutuek, Gipuzkoako Campuseko Unibertsitateko Ikerketa Institutuen egoitzei buruzko araudiaren arabera.

**Título tercero**
*Criterios de uso del edificio*

**Artículo 22.** Los criterios de uso de las Zonas de Servicios Comunes vinculados al uso, aprovechamiento y administración del propio edificio son los siguientes:
1. La utilización de estos espacios se somete a la normativa universitaria emanada del órgano competente relativa a la utilización y alquiler de los locales e instalaciones de la Universidad, y las normas de régimen interior que el Consejo Ejecutivo del Centro establezca en su caso.
2. Las entidades instaladas en el Centro tendrán preferencia en el uso de los espacios comunes, en todo caso previa

**Hirugarren titulua**
*Eraikina erabiltzeko irizpideak*

**22. artikulua.** Eraikinaren beraren erabilera, aprobetxamendu eta administrazioarekin lotutako Zerbitzu Orokorretarako Eremuak irizpide hauen arabera erabiliko dira:
1. Eremu horien erabilera gobernatuko dute Unibertsitateko lokalen eta instalazioen erabilerari eta alokairuari buruz organo eskudunak emandako unibertsitate araudiak eta Zentroko Kontseilu Betearazleak onar lezakeen barne araudiak.
2. Zentroan instalatutako entitateek lehentasuna izango dute eremu orokorrak erabiltzerakoan, baldin eta aurretik idatziz eskatzen badute eta

solicitud escrita y autorización del Director o de la Directora del Centro en el ejercicio de su discrecionalidad gestora.
3. Los espacios deberán ser utilizados conforme a su naturaleza y destino ordinario.
4. El uso y horario de los espacios comunes y de las áreas de descanso y autoservicio se determinará por el Consejo Ejecutivo del Centro.

**Artículo 23.** Los criterios de uso de los espacios propios asignados a cada entidad son los siguientes:
1. Los espacios serán destinados exclusivamente a las actividades consignadas en la resolución de adjudicación y contrato-programa.
2. El horario de uso de los espacios asignados será libre y a tal efecto se articularán los medios necesarios de acceso exclusivo al espacio propio.

**Artículo 24.** Los daños y perjuicios producidos por actos de uso y funcionamiento inadecuado o negligente se imputarán al responsable o responsables de los mismos y subsidiariamente a la entidad usuaria responsable del que dependa el causante del daño.

**Título cuarto**
*Órganos de dirección, administración y asesoría*

**Artículo 25.** *El Director o la Directora del Centro*
1. La Dirección del Centro se

Zentroko zuzendariak bere kudeaketa eskumenen arabera horretarako baimena ematen badu.
3. Eremuak duten izaeraren eta ohiko xedearen arabera erabiliko dira.
4. Eremu orokorren eta atseden eta autozerbitzu eremuen erabilera eta ordutegia Zentroko Kontseilu Betearazleak zehaztuko ditu.

**23. artikulua.** Entitate bakoitzak berari esleitutako eremuak irizpide hauen arabera erabiliko ditu:
1. Adjudikazio ebazpenean eta kontratu-programan aurreikusitako jardueretarako bakarrik erabiliko ditu eremuak.
2. Esleitutako eremuak erabiltzeko ordutegia librea izango du eta behar diren neurriak hartuko dira, bere eremura bera bakarrik sartu dadin.

**24. artikulua.** Eremuei erabilera edo funtzionamendu desegokia edo arduragabea emateagatik eragin litezkeen kalteak eta galerak erabilera edo funtzionamendu horien arduradunari edo arduradunei leporatuko zaizkie eta, subsidiarioki, kalteak edo galerak eragin dituenaren entitate erabiltzaileari.

**Laugarren titulua**
*Zuzendaritza, administrazio eta aholkularitza organoak*

**25. artikulua.** *Zentroko zuzendaria*

1. Zentroko zuzendaria Gipuzkoako

determinará por resolución del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

2. Las funciones del Director o de la Directora, relacionadas con el objetivo propio del edificio, serán las siguientes:

*(a)* Ser interlocutor entre el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, el Consejo Ejecutivo del Centro y los usuarios del edificio.
*(b)* Coordinar la gestión y administración ordinaria del Centro cuya responsabilidad recae sobre el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.
*(c)* Velar por las condiciones en materia de prevención de riesgos laborales de todas las dependencias del Centro adoptando las medidas oportunas.
*(d)* Actuar de interlocutor y canalizador de las demandas de los agentes socioeconómicos del territorio en materias relacionadas con el destino del Centro.
*(e)* Promover relaciones y transferencia de tecnología entre los Grupos de Investigación de la UPV/EHU, Institutos Universitarios de Investigación y las empresas guipuzcoanas de forma que se intensifique el enfoque empresarial de los primeros y se mejore la base tecnológica de las segundas.
*(f)* Promover todas aquellas acciones que permitan mejorar la eficiencia de la tarea innovadora y de investigación de la Universidad, y su interacción con otros Grupos de Investigación, Institutos Universitarios de Investigación, empresas e instituciones.
*(g)* Aplicar y ejecutar los acuerdos del

Campuseko Errektoreordetzaren ebazpenaren bidez izendatuko da.

2. Eraikinaren helburua aintzat hartuz, hauek dira zuzendariaren eginkizunak:

*(a)* Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren, Zentroko Kontseilu Betearazlearen eta eraikinaren erabiltzaileen arteko lotura izatea.
*(b)* Zentroaren ohiko kudeaketa eta administrazioa koordinatzea. Kudeaketa eta administrazio horren ardura Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzarena da.
*(c)* Zentroko lokal guztietako lan arriskuen prebentzioaren inguruko baldintzak zaintzea, dagozkion neurriak hartuz.
*(d)* Zentroaren xedearekin zerikusia duten gaien inguruan Gipuzkoako eragile sozioekonomikoen eskaerak hartzea eta bideratzea.
*(e)* UPV/EHUko Ikerketa Taldeen, Unibertsitateko Ikerketa Institutuen eta Gipuzkoako enpresen artean harremanak eta teknologiaren transferentzia bultzatzea, lehenengoen enpresa ikuspegia indartu dadin eta bigarrenen oinarri teknologikoa hobetu dadin.
*(f)* Unibertsitateko berrikuntza eta ikerketa lanaren efizientzia hobetzea eta beste Ikerketa Talde, Unibertsitateko Ikerketa Institutu, enpresa eta erakunde batzuekin dagoen interakzioa hobetzea ahalbidetuko dituzten ekintzak bultzatzea.
*(g)* Zentroko Kontseilu Betearazlearen erabakiak aplikatzea eta betetzea.

Consejo Ejecutivo del Centro.
*(h)* Coordinar la elaboración de la Memoria anual de las actividades desarrolladas en el Centro y su presentación como informe en la Junta de Campus de Gipuzkoa.
*(i)* Promocionar las actividades del Centro e impulsar su mejora continua.
*(j)* Otras que sean definidas por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

*(h)* Zentroan garatutako jardueren urteko memoriaren prestakuntza koordinatzea eta memoria hori Gipuzkoako Campuseko Batzarrean txosten moduan aurkeztea.
*(i)* Zentroko jarduerak sustatzea eta horien etengabeko hobekuntza bultzatzea.
*(j)* Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak zehaztu ditzakeen beste batzuk.

**Artículo 26.** *El Consejo Ejecutivo del Centro*

1. El Consejo Ejecutivo del Centro tiene por función coordinar y resolver cuantas cuestiones de gestión se planteen en el Centro y concretamente:
*(a)* Definir y realizar propuestas al Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa para su aprobación sobre:
  - *(a')* Los criterios de uso de los espacios comunes del Centro, dentro del marco de la normativa universitaria.
  - *(b')* Los criterios de asignación de espacios de investigación y empresas, incluidas las *spin-off*.
  - *(c')* La selección de usuarios y determinación de las condiciones que deben figurar en los contratos-programa que se establezcan con cada Grupo de Investigación, Instituto Universitario de Investigación y/o empresa.
  - *(d')* La actualización de las tarifas por el uso de espacios del Centro en función del incremento de costes y destino de los ingresos generados.
  - *(e')* La adjudicación, renovación o revocación de espacios.

**26. artikulua.** *Zentroko Kontseilu Betearazlea*

1. Zentroko Kontseilu Betearazlearen zeregina da Zentroko kudeaketaren inguruan agertzen diren gaiak koordinatzea eta erabakitzea; zehatzago esanda:
*(a)* Ondorengo gaiak definitzea eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari proposamenak egitea, azken honek onar ditzan:
  - *(a')* Zentroko eremu orokorrak erabiltzeko irizpideak, unibertsitate araudiaren babesean.
  - *(b')* Ikerketarako eta enpresei (*spin-off* enpresak barne) guneak esleitzeko irizpideak.
  - *(c')* Erabiltzaileen hautaketa eta Ikerketa Talde, Unibertsitateko Ikerketa Institutu eta/edo enpresa bakoitzarekin ezartzen diren kontratu-programetan azaldu behar duten baldintzen zehaztapena.
  - *(d')* Zentroko guneak erabiltzeagatik tarifak eguneratzea, kostuen igoera eta sorturiko diru sarreren erabilera aintzat hartuz.
  - *(e')* Guneen adjudikazioa, berritzea eta baliogabetzea.

*(b)* Nombrar la Comisión Científica del Centro.

2. El Consejo Ejecutivo del Centro estará integrado por:

*(a)* El Vicerrector o la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa o persona en quien éste o ésta delegue, que la preside con voto de calidad.
*(b)* El Vicerrector o la Vicerrectora de Investigación o persona en quien éste o ésta delegue.
*(c)* El o la Vicegerente de Campus de Gipuzkoa.
*(d)* El Director o la Directora del Centro.
*(f)* Dos investigadores, pertenecientes a la plantilla del Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU, representantes de los Grupos de Investigación ubicados en el Centro elegidos para un mandato de tres años. A tal efecto, el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa convocará una reunión a la que acudirá un representante de cada Grupo de Investigación y elijan esos dos representantes.
*(g)* El Secretario o la Secretaria de Campus de Gipuzkoa que actuará como Secretario con voz pero sin voto.

3. En las reuniones del Consejo Ejecutivo del Centro podrán participar las personas que sean invitadas en razón del contenido a tratar.

4. El Consejo Ejecutivo del Centro se reunirá como mínimo dos veces al año mediante convocatoria del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

*(b)* Zentroko Batzorde Zientifikoa izendatzea.

2. Hauek osatuko dute Zentroko Kontseilu Betearazlea:

*(a)* Gipuzkoako Campuseko errekotoreordeak edo horrek eskuordetzen duen pertsonak, lehendakari gisa eta kalitatezko botoarekin.
*(b)* Ikerketa errektoreordeak edo horrek eskuordetzen duen pertsonak.
*(c)* Gipuzkoako Campuseko gerenteordeak.
*(d)* Zentroko zuzendariak.
*(f)* Bi ikertzailek. Horiek izango dira UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen plantilakoak eta Zentroan kokatutako Ikerketa Taldeen ordezkari, hiru urterako hautatuak. Horretarako, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak bilera bat deituko du, bertara Ikerketa Talde bakoitzeko ordezkari bat joango da eta bi ordezkari horiek hautatuko dituzte.
*(g)* Gipuzkoako Campuseko idazkariak, idazkari lanetan arituko dena, hitzarekin baina botorik gabe.

3. Zentroko Kontseilu Betearazlearen bileretan parte hartu ahal izango dute landu behar den edukiaren arabera gonbidatutako pertsonek.

4. Zentroko Kontseilu Betearazlea urtean bitan bilduko da gutxienez, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren deialdiaren bidez.

5. El cargo de miembro del Consejo Ejecutivo del Centro no será remunerado. No obstante, podrá ser reembolsado de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones le ocasione.

5. Zentroko Kontseilu Betearazleko kideek ez dute ezer kobratuko kide izateagatik. Nolanahi ere, beren eginkizunak betetzean sorturiko gastuak ordaindu egingo zaizkie, behar bezala justifikatzen badituzte.

**Artículo 27.** *La Comisión Científica del Centro*

1. La Comisión Científica del Centro tiene por función:

*(a)* Evaluar las solicitudes de los Grupos de Investigación, Institutos Universitarios de Investigación y empresas, y elevar una propuesta al Consejo Ejecutivo del Centro.

*(b)* Realizar un seguimiento de los usuarios del Centro y las actividades que éstos lleven a cabo.

*(c)* Asesorar al Consejo Ejecutivo del Centro en todas aquellas cuestiones que le sean planteadas.

2. Para ello, la Comisión Científica del Centro estará integrada por un número no limitado de personas con relevancia en los ámbitos científicos y empresariales implicados en las actividades del Centro. Su elección, por tanto, obedece a la relevancia personal y profesional de cada miembro y no a su representatividad institucional.

3. En su seno podrán organizarse subcomisiones en función de las Áreas de la Ciencia que se valoren en cada caso.

4. El cargo de miembro de la Comisión Científica del Centro no será remunerado. No obstante, podrá ser reembolsado de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones le ocasione.

**27. artikulua.** *Zentroko Batzorde Zientifikoa***.**

1. Hauek dira Zentroko Batzorde Zientifikoaren eginkizunak:

*(a)* Ikerketa Taldeen, Unibertsitateko Ikerketa Institutuen eta enpresen eskaerak ebaluatzea eta Zentroko Kontseilu Betearazleari proposamena igortzea.

*(b)* Zentroaren erabiltzaileei eta horiek burutzen ari diren jarduerei jarraipena egitea.

*(c)* Zentroko Kontseilu Betearazlea aholkatzea azaltzen zaizkion gai guztietan.

2. Horretarako, Zentroko Batzorde Zientifikoa osatuko dute Zentroko jardueren inguruko arlo zientifikoetan eta enpresarialetan pertsona nabarmenek; batzordekide kopurua ez da mugatua egongo. Batzordeko kideak berez eta profesionalki duten garrantziagatik hautatuko dira hortaz, eta ez izan dezaketen ordezkaritza instituzionalagatik.

3. Batzordean azpibatzordeak antolatu ahal izango dira, kasu bakoitzean baloratzen diren Zientziaren Arloen arabera.

4. Zentroko Batzorde Zientifikoko kideek ez dute ezer kobratuko kide izateagatik. Nolanahi ere, beren eginkizunak betetzean sorturiko gastuak ordaindu egingo zaizkie, behar bezala justifikatzen badituzte.

**Disposición Transitoria**

**Primera.** *Grupos de Investigación e Institutos Universitarios de Investigación con espacio adjudicado conforme a convocatoria en el año 2006.*

Los actuales usuarios ocupantes del inmueble mantendrán su régimen conforme a las adjudicaciones aprobadas con anterioridad a la entrada en vigor de esta normativa.

**Xedapen iragankorra**

**Lehena**. *2006ko deialdiaren arabera guneak adjudikatu zaizkien Ikerketa Taldeak eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuak.*

Zentroaren gaur egungo erabiltzaileek beren erregimenari bere horretan eutsiko diote, araudi hau indarrean sartu aurretik onetsitako adjudikazioen arabera alegia.